Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko azaroaren 12a, ostirala — 217 — Viernes, a 12 de noviembre de 2021

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA

*1821/2021 Foru Agindua, azaroaren 10ekoa, gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak betetzeko 2021eko lehiaketa bateratua deitzekoa.*

Departamentuko foru diputatuak honako agindu hau eman du 2021eko azaroaren 10ean:

Indarrean dagoen legeriaren arabera, merezimenduen lehiaketa da gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak behin betiko betetzeko ohiko sistema; eta bi izaten dira urtean: lehiaketa arrunta eta lehiaketa bateratua.

Urriaren 19ko 1712/2021 Foru Aginduaren bidez (urriaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 203. zk.) ebatzi zen 2021eko lehiaketa arruntaren deialdia Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokionez: hain zuzen, eskainitako lanpostu guztiak hutsik uztea ebatzi zen.

Lanpostu mota horiek behin betiko betetzeko lehiaketa arruntaren ordezko izaera dauka lehiaketa bateratuak; eta, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, arau hauei jarraikiz egin ohi da urtero: Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria; funtzionarioen eskala horren araubide juridikoari buruzko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua; eta merezimendu orokorren balorazioa arautzen duen otsailaren 16ko TFP/153/2021 Agindua.

Lehiaketa bateratuan Estatuko Administrazioak finkatutako merezimendu orokorrak eta autonomia erkidegoaren berezitasunei dagozkien merezimenduak baloratzen dira. Hain zuzen, 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren 8. zenbakiari jarraikiz, guztira 30 puntu izanik, merezimendu orokorren gehieneko puntuazioa 19,50 izango da (% 65); eta Euskal Autonomia Erkidegoak finkatu beharreko merezimenduen gehieneko puntuazioa, berriz, 9 (% 30).

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio bere lurralde eremuko lehiaketa bateratua deitzea, ondorengo arau hauei jarraikiz: 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarria; 128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria; eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen hamahirugarren xedapen iragankorra.

Horiek horrela, Gobernantza Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko urriaren 20ko 17/2020 Foru Dekretuak 1.1.g) artikuluan, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 40.2.f) artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, foru diputatu honek

EBAZTEN DU

2021eko lehiaketa bateraturako deialdia egitea: Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateetan gaikuntza nazionaleko

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA

*Orden Foral 1821/2021, de 10 de noviembre, por la que se realiza la convocatoria del concurso unitario de 2021 para la provisión de los puestos de trabajo vacantes reservados a personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional.*

La diputada foral del Departamento ha dictado, con fecha 10 de noviembre de 2021, la siguiente orden:

Conforme a la legislación vigente, el concurso de méritos se configura como el sistema normal de provisión definitiva de los puestos de trabajo reservados al personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional; y se convocan dos anualmente: el concurso ordinario y el concurso unitario.

Mediante la Orden Foral 1712/2021, de 19 de octubre (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 203, de 22 de octubre), se ha resuelto la convocatoria del concurso ordinario de 2021 y se han declarado vacantes todos los puestos ofertados.

El concurso unitario es la modalidad subsidiaria, respecto del ordinario, de provisión definitiva de estos puestos de trabajo; y se regula, en lo que se refiere a la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el artículo 92 bis y la disposición adicional segunda de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local; en el Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de esta escala funcionarial; y la Orden TFP/153/2021, de 16 de febrero, por la que se regula la valoración de los méritos generales.

En el concurso unitario son objeto de valoración los méritos generales determinados por la Administración del Estado y los méritos correspondientes a las especialidades de la comunidad autónoma respectiva. De conformidad con el número 8 de la disposición adicional segunda de la Ley 7/1985, sobre un total de 30 puntos, la puntuación máxima de los méritos generales es de 19,50 (el 65 %); y de los méritos que corresponde determinar a la Comunidad Autónoma del País Vasco, 9 (el 30 %).

Corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa convocar el concurso unitario de su ámbito territorial, de acuerdo con lo establecido en la disposición adicional segunda de la Ley 7/1985 y la disposición adicional tercera del Real Decreto 128/2018, en relación con lo previsto en la disposición transitoria decimotercera de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

Por cuanto antecede, en uso de las atribuciones que le confieren el artículo 1.1.g) del Decreto Foral 17/2020, de 20 de octubre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, y el artículo 40.2.f) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, esta diputada foral

RESUELVE

Convocar el concurso unitario de 2021 para la provisión definitiva de los puestos de trabajo vacantes en las entidades lo-

EK\CV GAO-I-2021-07304

Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak behin betiko betetzeko. Lehiaketa bateratu hori ondorengo oinarri hauek arautzen dute:

*Lehena. Eskaintzen diren lanpostuak.*

1. 2021eko lehiaketa bateratuan foru agindu honen eranskinean jasotako lanpostuak eskaintzen dira; ondoko egoera hauetakoren batean daudenak, hain zuzen:

a) Hutsik egon arren, toki korporazioek lehiaketa arruntaren 2021eko deialdian sartu ez zituztenak.

b) 2021eko lehiaketa arruntean sartu arren, hutsik geratu diren lanpostuak.

c) 2021eko lehiaketa arrunta deitu ondoren hutsik geratu diren lanpostuak, eragindako toki korporazioek berariaz sartzeko eskatu dutelako.

d) Deialdi hau egin eta hurrengo 6 hilabeteetan hutsik geldituko diren lanpostuak, eragindako toki korporazioek berariaz sartzeko eskatu dutelako.

2. Lehiaketan sartutako lanpostu guztiek derrigorrezko 4. hizkuntza eskakizuna daukate; Andoaingo Udaleko Kontuhartzailetza eta Diruzaintza lanpostuek eta Hondarribiko Udaleko Diruzaintza lanpostuak izan ezik, horiek derrigorrezko 3. hizkuntza eskakizuna baitute.

Horri dagokionez, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 43.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, derrigorrezko 4. hizkuntza eskakizuneko lanpostua denean eta izangaietako inork ez duenean hizkuntza eskakizun hori egiaztatu, 3. hizkuntza eskakizuna ezarriko zaio lanpostuari deialdi honetan betetzeko eragin bakarretara.

*Bigarrena. Parte hartzea.*

1. Gaikuntza nazionala duten funtzionarioek parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan: betiere, sailkapenaren arabera, beren azpieskala eta kategoriari dagozkien lanpostuetarako.

Halaber, desagertutako Toki Administrazioko Idazkari, Kontuhartzaile eta Gordailuzainen Kidego Nazionalekoak diren eta egungo azpieskaletan sartu gabe dauden funtzionarioek ere parte hartu ahal izango dute, ondoko baldintzetan:

— Hirugarren mailako idazkariek, Idazkaritza-Kontuhartzailetza azpieskalari gordetako lanpostuetarako.

— «Iraungitzeko» dauden udaletako idazkariek, gehienez ere 2.000 biztanle dituzten udalerrietako udaletako Idazkaritzetarako.

2. Nolanahi ere, behin-behineko izendapena duten funtzionarioek lehiaketa bateratuan parte hartzeko obligazioa dute, beren azpieskala eta kategoriako lanpostu guztietarako.

Ez badituzte lanpostu guztiak eskatzen, zehaztu gabekoei dagokienez lehentasun-hurrenkera ezartzeari uko egin diotela joko da.

3. Honako hauek ezingo dute lehiaketan parte hartu:

a) Epai edo ebazpen administratibo irmo baten indarrez desgaiturik edo aldi baterako eginkizun-gabeturik dauden funtzionarioek, bertan adierazitako denbora iragan ez bada.

b) 7/1985 Legearen 92 bis artikuluaren 11. zenbakiari jarraikiz, kargugabeturiko funtzionarioek, zehapena jaso duten korporazio bereko beste lanpostu baterako, zehapenaren denboraldian.

c) Norberaren interesagatik edo familia elkartzeko borondatezko eszedentzia egoeran dauden funtzionarioek, egoera horretan daudenetik hona bi urte igaro ez badira.

cales del Territorio Histórico de Gipuzkoa reservados a personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional. Este concurso se regirá por las siguientes bases:

*Primera. Puestos que se ofrecen.*

1. Se ofrecen en el concurso unitario de 2021 los puestos que se relacionan en el anexo de esta orden foral, que se encuentran en alguna de las siguientes situaciones:

a) Puestos vacantes que no fueron convocados por las corporaciones locales en el concurso ordinario de 2021.

b) Puestos que, habiendo sido convocados en el concurso ordinario de 2021, han quedado desiertos.

c) Puestos que han resultado vacantes con posterioridad a la convocatoria del concurso ordinario de 2021, y las corporaciones locales afectadas han solicitado expresamente su inclusión.

d) Puestos que quedarán vacantes dentro de los 6 meses posteriores a la presente convocatoria, y las corporaciones locales afectadas han solicitado expresamente su inclusión.

2. Todos los puestos incluidos en el concurso tienen asignado el perfil lingüístico 4 con carácter preceptivo, salvo los puestos de Intervención y Tesorería del Ayuntamiento de Andoain, y el puesto de Tesorería del Ayuntamiento de Hondarribia, que tienen asignado el perfil lingüístico 3 preceptivo.

De conformidad con lo previsto en el artículo 43.2 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, que regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuando el puesto convocado tenga asignado el perfil lingüístico 4 preceptivo, y éste no se acredite por ninguno de las y los aspirantes, se aplicará a dicho puesto el perfil lingüístico 3 a los únicos efectos de cobertura en esta convocatoria.

*Segunda. Participación.*

1. Las y los funcionarios con habilitación de carácter nacional podrán concursar a los puestos de trabajo que, según su clasificación, corresponden a la subescala y categoría a que pertenezcan.

Podrán participar, asimismo, las y los funcionarios no integrados en las actuales subescalas, pertenecientes a los extinguidos Cuerpos Nacionales de Secretarios/as, Interventores/as y Depositarios/as de Administración Local, en los términos siguientes:

— Las y los secretarios de tercera, a puestos reservados a la subescala de Secretaría-Intervención.

— Las y los secretarios de ayuntamientos «a extinguir», a Secretarías de ayuntamientos de municipios con población que no exceda de 2.000 habitantes.

2. En cualquier caso, tienen la obligación de participar en el concurso unitario, a la totalidad de puestos correspondientes a su subescala y categoría, las y los funcionarios con nombramiento provisional.

Si no solicitasen todos los puestos, se entenderá que renuncian a establecer orden de prelación respecto a los no relacionados.

3. No podrán concursar:

a) Las y los funcionarios inhabilitados y las y los suspensos en virtud de sentencia o resolución administrativa firmes, si no hubiera transcurrido el tiempo señalado en ellas.

b) Las y los funcionarios destituidos, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 bis, número 11, de la Ley 7/1985, a puestos de la misma corporación en la que tuvo lugar la sanción, durante el tiempo que dure la misma.

c) Las y los funcionarios en las situaciones de excedencia voluntaria por interés particular o por agrupación familiar, si no hubiera transcurrido el plazo de dos años desde el pase a las mismas.

EK\CV GAO-I-2021-07304

d) Edozein Administrazio Publikotan behin betiko izaeraz lortutako azken lanpostuan bi urte baino gutxiago daramaten funtzionarioek, salbuetsita ondorengo bi kasu hauek: (1) toki entitate berean bere azpieskala eta kategoriako lanpostura lehiatzea; edo (2) 128/2018 Errege Dekretuaren 27.1.c)-2. artikuluan aurreikusi egoeran egotea.

*Hirugarrena. Parte hartzeko dokumentazioa eta epea.*

1. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokion lehiaketa bateratuaren deialdia argitaratzeko ebazpena *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta hamabost (15) egun balioduneko epean, parte hartu nahi duten gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioko funtzionarioek ondoko dokumentazioa aurkeztuko dute Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzan (Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioa):

— Parte hartzeko eskabidea, eskatzen diren lanpostu guztiak banan-banan adierazita; eta bigarren oinarriaren 3. zenbakiak aipatzen dituen egoeretan ez aurkitzearen zinpeko aitorpenarekin. Eskatutako lanpostuen zehaztapena lehentasun-hurrenkeraren arabera egingo da, eta hurrenkera hori bakarra izango da eskatzen diren lanpostu guztientzako. Lehentasun-hurrenkera bakar horri eutsiko zaio azpieskala eta kategoria desberdinetako lanpostuak eskatzen direnean ere, haietan barne hartuta egoteak hala ahalbidetuko balu.

— Autonomia erkidegoak ezarritako merezimenduak egiaztatzeko agiriak; eta euskararen ezagutzari buruzko beharkizuna betetzen duela egiaztatzen duena, dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztaturik badu.

— 128/2018 Errege Dekretuaren 32.1.g) artikuluari jarraikiz bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko merezimenduak alegatuz gero, merezimendu orokorren balorazioa arautzen duen otsailaren 16ko TFP/153/2021 Aginduaren 4. artikuluaren 7. zenbakian zerrendatutako egiaztagiriak.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko lanpostuak bakarrik eskatuz gero, aipatutako dokumentazioa Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzan aurkeztuko da.

3. Eskabidea Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzan (Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioa. Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia) aurkezten dutenek euskararen hizkuntzaeskakizuna egiaztatzeko azterketa egin nahi badute, horretarako eskaera egin beharko diote Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eskabideak aurkezteko epearen barruan.

4. Hizkuntza eskakizunari buruz bosgarren oinarrian xedatutakoaren kalterik gabe, galdatutako beharkizunak eta alegatutako merezimenduak bete beharko dira *Estatuko Aldizkari Ofizialean* lehiaketa bateratuaren deialdia argitaratze aldera Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak hartutako ebazpenaren datan.

5. Eskaera eta atxikitako dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira:

— Oinarri honen 1. zenbakiaren kasuan, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren egoitza elektronikoan lehiaketa bateraturako gaitutako prozedura telematikoaren bitartez: https://sede.administracionespublicas.gob.es/procedimientos/portada/idp/81.

— Oinarri honen 2. zenbakiaren kasuan, Interneteko ondorengo helbide honetan lehiaketa bateraturako gaitutako prozedura telematikoaren bitartez www.euskadi.eus/zerbitzuak/1075104.

6. Lehiaketan borondatez parte hartzeari uko egin ahal izango zaio, betiere Balorazio Epaimahaiaren bilera baino lehen egi-

d) Las y los funcionarios que no lleven dos años en el último destino obtenido con carácter definitivo en cualquier Administración Pública, salvo en los siguientes casos: (1) que concursen a puestos reservados a su subescala y categoría en la misma entidad local; o (2) que se encuentren en el supuesto previsto en el artículo 27.1.c)-2.º del Real Decreto 128/2018.

*Tercera. Documentación y plazo para participar.*

1. En el plazo de quince (15) días hábiles a partir del día siguiente al de la publicación en el *Boletín Oficial del Estado* de la resolución por la que se publica la convocatoria del concurso unitario en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, los y las funcionarias de Administración Local con habilitación de carácter nacional que deseen tomar parte dirigirán la siguiente documentación a la Secretaría de Estado de la Función Pública (Dirección General de la Función Pública. Ministerio de Hacienda y Función Pública):

— Solicitud de participación, con expresión individualizada de todos los puestos a que concursan; y declaración jurada de no incurrir en ninguna de las circunstancias a que se refiere el número 3 de la base segunda. La especificación de puestos solicitados se hará por orden de prelación, con carácter único para la totalidad de puestos que se soliciten. La unicidad del orden de prelación se mantendrá incluso en el supuesto de solicitar puestos de varias subescalas y categorías, si la pertenencia a las mismas lo permitiera.

— Documentación acreditativa de los méritos de determinación autonómica; así como de reunir el requisito de conocimiento del euskera, si tuviese acreditado el correspondiente perfil lingüístico.

— Si se alegan méritos referidos a la conciliación de la vida personal, familiar y laboral de conformidad con lo previsto en el artículo 32.1.g) del Real Decreto 128/2018, documentación acreditativa enumerada en el número 7 del artículo 4 de la Orden TFP/153/2021, de 16 de febrero, por la que se regula la valoración de los méritos generales.

2. Si se solicitasen exclusivamente puestos de trabajo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la referida documentación se dirigirá a la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco.

3. Quienes presenten su solicitud en la Secretaría de Estado de la Función Pública (Dirección General de la Función Pública. Ministerio de Hacienda y Función Pública) y deseen realizar el examen de acreditación de los perfiles lingüísticos de euskera, deberán solicitarlo, dentro del plazo de presentación de solicitudes, a la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco.

4. Sin perjuicio de lo previsto en la base quinta en relación con el perfil lingüístico, los requisitos exigidos, así como los méritos alegados, deberán reunirse a la fecha de la resolución de la Dirección General de la Función Pública del Ministerio de Hacienda y Función Pública, disponiendo la publicación de la convocatoria del concurso unitario en el *Boletín Oficial del Estado*.

5. Tanto la solicitud como la documentación que le acompaña deberán presentarse por medios electrónicos:

— En el supuesto previsto en el número 1, a través del procedimiento telemático habilitado para el concurso unitario en la sede electrónica del Ministerio de Hacienda y Función Pública: https://sede.administracionespublicas.gob.es/procedimientos/portada/idp/81.

— En el supuesto previsto en el número 2, a través del procedimiento telemático habilitado para el concurso unitario en la siguiente dirección de internet: www.euskadi.eus/servicios/1075104.

6. Se podrá renunciar a la participación voluntaria en el concurso, siempre que dicha renuncia se efectúe con anteriori-

ten bada; eta, nolanahi ere, 2022ko urtarrilaren 31ra arte. Uko egitea ere bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar da.

Ezin izango zaio eskatutako lanposturen bati edo batzuei partzialki uko egin.

*Laugarrena. Balorazio Epaimahaia.*

1. Euskal Autonomia Erkidegoan epaimahai bakarra osatuko da, ondorengo kide hauekin: Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko ordezkari bat, epaimahaiburu izango dena; lurralde historikoetako foru aldundi bakoitzeko ordezkari bat; eta Toki Administrazioko funtzionario bat, gaikuntza nazionalekoa eta goi mailako titulazioduna.

Euskararen ezagutza egiaztatzeko probetarako soil-soilik, IVAPeko ordezkari batek ere parte hartuko du Balorazio Epaimahai horretan.

2. Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariak izendatuko ditu epaimahaikideak; eta horretarako hartzen duen ebazpena *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratuko da.

*Bosgarrena. Lehiaketatik kanpo uztea eta merezimenduak baloratzea.*

1. Lehiaketan parte hartzen dutenek bigarren oinarrian azaltzen diren beharkizunak eta dagokion hizkuntza eskakizuna betetzen dituztela egiaztatuko du lehenik Balorazio Epaimahaiak; eta betetzen ez dituztenak lehiaketatik kanpo utziko ditu.

Horretarako, euskararen ezagutza egiaztatzeko proba egin nahi dutenek hala adierazi behar dute berariaz parte hartzeko eskabidean, egiaztatu beharreko hizkuntza eskakizuna zehaztuz.

Halaber, hizkuntza eskakizuna egiaztatu ahal izango da IVAPek emandako ziurtagiriaren bitartez; edo azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak –euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko denak–ezarritakoaren arabera, baliokideak diren beste ziurtagiri batzuen bitartez. Agiriok lehiaketan parte hartzeko eskabideari erantsiko zaizkio.

2. Jarraian, merezimenduak modu honetan puntuatuko ditu epaimahaiak:

2.1. Merezimendu orokorren balorazioa (gehienez ere 19,50 puntu) aterako da deialdiarekin batera argitaratuko den Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenean jasotako zerrendatik; eta parte hartzen dutenek ezingo dute egiaztapen gehigarririk aurkeztu, ezta epaimahaiak balorazio desberdinik egin ere.

2.2. Euskal Autonomia Erkidegoak finkatutako merezimenduen balorazioa (gehienez ere 9 puntu) lehiaketan parte hartzen dutenek aurkeztutako egiaztapenean oinarrituta egingo da. Merezimendu horiei dagozkien 9 puntuak modu honetan banatuko dira (Gobernu Kontseiluaren 1988ko azaroaren 8ko Erabakia: azaroaren 12ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 212 zk; eta 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren 8. zenbakia):

— 6 puntu gai hauen inguruko ezaguera eta lanaren balorazioari: Autonomia Estatutua; eskubide historikoak; Autonomia Erkidegoaren erakunde egituraren arauketa; eta hizkuntza normalizazioaren plangintza, administrazio publikoetan aplikatzeari dagokionez bereziki.

dad a la reunión del Tribunal de Valoración; y, en todo caso, hasta el 31 de enero de 2022. La renuncia deberá presentarse también por medios electrónicos.

No se podrá renunciar de forma parcial, a alguno o a algunos de los puestos solicitados.

*Cuarta. Tribunal de Valoración.*

1. Se constituirá un único tribunal en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con la siguiente composición: una persona en representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma, a quien corresponderá la presidencia; una persona por cada una de las diputaciones forales de los territorios históricos; y una o un funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional y con titulación de nivel superior.

A los solos efectos de las pruebas de acreditación del conocimiento del euskera, formará parte del Tribunal de Valoración una persona representante del IVAP.

2. La directora de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco designará a las personas que formarán parte del tribunal; y la resolución que adopte a tal efecto se publicará en el *Boletín Oficial del País Vasco*.

*Quinta. Exclusión de concursantes y valoración de méritos.*

1. El Tribunal de Valoración comprobará el cumplimiento por parte de las personas participantes de los requisitos de participación señalados en la base segunda y del perfil lingüístico exigido; y excluirá a quienes no los reúnan.

A estos efectos, las personas que deseen realizar la prueba de acreditación del conocimiento del euskera lo harán constar en la solicitud de participación, con indicación del perfil a acreditar.

El perfil lingüístico podrá acreditarse también mediante certificación expedida por el IVAP o por otros certificados equivalentes, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas. Esta documentación se adjuntará a la solicitud de participación.

2. A continuación, el tribunal puntuará los méritos del siguiente modo:

2.1. La valoración de los méritos generales (hasta un máximo de 19,50 puntos) se obtendrá de la relación incluida en la resolución de la Dirección General de la Función Pública del Ministerio de Hacienda y Función Pública, publicada conjuntamente con la convocatoria, sin que sea posible acreditación adicional alguna por parte de los y las concursantes, ni valoración distinta por parte del tribunal.

2.2. La valoración de los méritos fijados por la Comunidad Autónoma del País Vasco (hasta un máximo de 9 puntos) se efectuará con base en la acreditación aportada por las y los concursantes. Los 9 puntos correspondientes a dichos méritos se distribuirán de la siguiente forma (Acuerdo del Consejo de Gobierno de 8 de noviembre de 1988: *Boletín Oficial del País Vasco* n.º 212, de 12 de noviembre; en relación con el número 8 de la disposición adicional segunda de la Ley 7/1985):

— 6 puntos a la valoración del conocimiento y trabajo desarrollados en torno al Estatuto de Autonomía, los Derechos Históricos, la regulación normativa del entramado institucional de la Comunidad Autónoma y la planificación de la normalización lingüística, con especial referencia a su aplicación en las administraciones públicas.

EK\CV GAO-I-2021-07304

— 3 puntu gai hauen inguruko ezaguera eta lanaren balorazioari: Ekonomia Itunetik datozen espezialitate ekonomiko-administratiboak eta horiek toki ogasunaren alorrean duten eragina.

Merezimendu horiek honela egiaztatuko dira:

a) Aipatu gaiei buruzko ikastaro, jardunaldi, kongresu, mintegi eta gainerako topaguneetara joan izanaren ziurtagiriak.

b) Espezialitate horiei buruz egindako argitalpenak eta lanak.

c) Berezitasun horiekin erlazionatutako jardunaldi edo ikastaroetan hiztun edo irakasle gisa parte hartzea.

2.3. Merezimenduen azken puntuazioan bi parte hartzaile edo gehiagoren arteko berdinketa izanez gero, autonomia erkidegoak finkatutako merezimenduetan puntu gehien lortu duenari emango dio lehentasuna epaimahaiak bere esleipen proposamenean; eta hala ere berdinketari eutsiz gero, merezimendu orokorretan, 128/2018 Errege Dekretuaren 32.1 artikuluan ezarritako numerazioaren hurrenkeran, puntu gehien lortu duenari. Azken-azkenik, hautaketa prozesuko lehentasun-hurrenkeraren arabera desegingo da berdinketa.

*Seigarrena. Ebazpen proposamena.*

Lehiaketatik kanporatu beharrekoak kanporatu eta gainerako parte hartzaileen azken puntuazioa ezarri ostean, bere lurralde eremuko lanpostuei dagokien ebazpen proposamena egingo dio epaimahaiak Gipuzkoako Foru Aldundiari. Proposamen horretan honako hauek jasoko ditu: batetik, baloratutako parte hartzaileen zerrenda eta lortutako puntuak, gehienetik gutxienerako hurrenkeran; eta, bestetik, kanporatutakoen zerrenda eta kanporatzeko arrazoiak.

*Zazpigarrena. Izendapenen koordinazioa.*

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak parte hartzaile beraren aldeko izendapen anitzak saihesteko beharrezkoa den koordinazioa egingo dute, Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste autonomia erkidego batzuetako toki korporazioetako lanpostuak aldi berean eskatu direnean. Koordinazio hori egiterakoan kontuan hartuko dute interesdunek adierazitako lehentasun-hurrenkera.

*Zortzigarrena. Ebazpena.*

Balorazio Epaimahaiaren proposamenari, eta hala balegokio, koordinazioaren emaitzari jarraiki, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuko foru diputatuak foru aginduz ebatziko du lehiaketa bateratua bere lurralde eremuko lanpostuei dagokienez.

Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari bidaliko zaio; eta horrek, era berean, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari (Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzari) helaraziko dio.

*Bederatzigarrena. Lanpostuaren jabetza hartzeko epea.*

1. Lehiaketan lortutako destino edo lanpostuaren jabetza hartzeko epea hiru (3) egun baliodunekoa izango da herri bereko lanpostua bada; eta hilabete batekoa (1), lehen destinoa edo beste herri bateko lanpostua bada.

Aipatutako epea lanpostua utzi eta hurrengo egunetik hasita kontatuko da; eta lanpostua utzi beharko da lehiaketa bateratuaren ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hiru (3) egun baliodunen barruan.

Ebazpenak zerbitzu aktibora itzultzea badakar, lanpostuaren jabetza hartzeko epea aipatutako argitalpenetik aurrera hasiko da kontatzen.

— 3 puntos a la valoración del conocimiento y trabajos desarrollados en referencia a las especialidades económico-administrativas deducidas del Concierto Económico y, por ende, a su repercusión en materia hacendística local.

Estos méritos se acreditarán de la siguiente manera:

a) Certificados de asistencia a cursos, jornadas, congresos, seminarios y demás foros celebrados sobre las materias en cuestión.

b) Publicaciones y trabajos efectuados sobre dichas especialidades.

c) Participación en calidad de ponente o profesor o profesora en jornadas o cursos relacionados con tales peculiaridades.

2.3. En caso de empate en la puntuación final de méritos de dos o más concursantes, el tribunal dará prioridad en la propuesta de adjudicación a quien hubiera obtenido mayor puntuación por méritos de determinación autonómica; y de mantenerse el empate, a quien en méritos generales tenga mayor puntuación según el orden de numeración del artículo 32.1 RD 128/2018. En última instancia, el empate se resolverá en base al orden de prelación en el proceso selectivo.

*Sexta. Propuesta de resolución.*

Efectuada por el tribunal la exclusión y puntuación final de los y las concursantes, remitirá a la Diputación Foral de Gipuzkoa la propuesta de resolución correspondiente a los puestos de su ámbito territorial. Dicha propuesta contendrá, por un lado, la relación de las personas no excluidas y sus puntuaciones ordenadas de mayor a menor; y, por otro, la relación de las personas excluidas y los motivos de su exclusión.

*Séptima. Coordinación de nombramientos.*

La Diputación Foral de Gipuzkoa y la Dirección General de la Función Pública del Ministerio de Hacienda y Función Pública efectuarán la coordinación precisa para evitar los nombramientos múltiples a favor de la misma persona, cuando se soliciten simultáneamente puestos en corporaciones locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de otras comunidades autónomas. La coordinación se realizará atendiendo al orden de prelación formulada por las personas interesadas.

*Octava. Resolución.*

Corresponde a la diputada foral del Departamento de Gobernanza de la Diputación Foral de Gipuzkoa la resolución, mediante orden foral, del concurso unitario en lo que se refiere a los puestos de su ámbito territorial, de acuerdo con la propuesta formulada por el Tribunal de Valoración y con el resultado de la coordinación, en su caso.

La orden foral se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y se remitirá a la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Gobierno Vasco, que la remitirá, a su vez, a la Dirección General de la Función Pública del Ministerio de Hacienda y Función Pública (Secretaría de Estado de la Función Pública).

*Novena. Plazo posesorio.*

1. El plazo de toma de posesión en el destino obtenido en el concurso será de tres (3) días hábiles, si se trata de un puesto de trabajo de la misma localidad; o de un (1) mes, si se trata de primer destino o de un puesto de trabajo en localidad distinta.

Dicho plazo empezará a contarse a partir del día siguiente al del cese, que deberá efectuarse dentro de los tres (3) días hábiles siguientes al de la publicación de la resolución del concurso unitario en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Si la resolución comporta el reingreso al servicio activo, el plazo de toma de posesión deberá computarse desde dicha publicación.

EK\CV GAO-I-2021-07304

2. Titularrak erretiroa hartu behar duelako eskaintzen diren lanpostuei dagokienez, lehiaketaren ebazpena argitaratzen den unean ez badu oraindik erretiroa hartu, jatorrizko lanpostua uzteko epea erretiroa hartzen deneko unera geroratuko da.

3. Lanpostuaren jabetza hartzeko epeen zenbaketa hasiko da interesdunei eman zaizkien baimen edo lizentziak amaitzen direnean, halakorik eman bazaie.

4. Zerbitzuaren beharrak direla eta, eragindako korporazioetako lehendakarien arteko akordioa tarteko, lanpostua uztea eta berriaren jabetza hartzea geroratu ahal izango dira, gehienez ere hiru (3) hilabetez. Lanpostuaren jabetza hartu behar duen korporazioko lehendakariak udalen arteko akordio horren berri eman beharko die Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Salbuespen gisa, interesdunak hala eskatuta eta justifikatutako arrazoiengatik, eragindako korporazioetako lehendakarien arteko akordioa tarteko, lanpostuaren jabetza hartzea geroratu ahal izango da epe berdinez; eta horren berri eman beharko zaie Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari.

*Hamargarrena. Destinoak ukaezinak eta borondatezkoak izatea.*

Esleitutako destinoak ukaezinak izango dira; eta borondatezkoak izango dira eta, ondorioz, ez dute lekualdaketagatiko kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik sortuko.

*Hamaikagarrena. Lanpostua uztea eta lanpostu berriaren jabetza hartzea jakinaraztea.*

1. Ebatzitako lehiaketan lanpostu bat lortzen duten parte hartzaileen lanpostua uzteko eta berriaren jabetza hartzeko eginbideak Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi beharko zaizkie, horiek gauzatu eta hurrengo hiru (3) egun baliodunen barruan.

2. Lanpostuaren jabetza hartzeak berekin dakar lanpostuari dagozkion funtzionario eskubide eta betebeharrak bereganatzea; eta funtzionarioa dagokion korporazioaren menpe geratzea.

*Hamabigarrena. Errekurtsoak.*

Lehiaketaren prozeduran emandako egintza administratiboen aurka dagozkien errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoari jarraiki.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2021eko azaroaren 10a.—Alfonso Acarreta Rodriguez, Departamentuko idazkari teknikoa. (7304)

2. En el caso de puestos ofertados por la próxima jubilación de su titular, si en el momento de la publicación de la resolución del concurso no se hubiese producido dicha jubilación, el plazo de cese en el puesto de origen se diferirá al momento en que tenga lugar.

3. El cómputo de los plazos posesorios se iniciará cuando finalicen los permisos o licencias que, en su caso, hayan sido concedidos a las personas interesadas.

4. Por necesidades del servicio, mediante acuerdo de las presidencias de las corporaciones afectadas, se podrá diferir el cese y la toma de posesión hasta un máximo de tres (3) meses. La presidencia de la corporación en que haya de tomar posesión deberá dar cuenta de este acuerdo a la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Gobierno Vasco, y a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Excepcionalmente, a instancia de la persona interesada y por razones justificadas, podrá también diferirse la toma de posesión, por igual plazo, por acuerdo entre las presidencias respectivas y dando cuenta a la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Gobierno Vasco, y a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Décima. Irrenunciabilidad y voluntariedad de los destinos.*

Los destinos adjudicados serán irrenunciables y tendrán carácter voluntario, no generando en consecuencia derecho al abono de indemnización por traslado.

*Undécima. Notificación de ceses y tomas de posesión.*

1. Las diligencias de cese y toma de posesión de las y los concursantes que accedan a un puesto de trabajo, de acuerdo con la resolución del concurso, deberán ser comunicadas a la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Gipuzkoa dentro de los tres (3) días hábiles siguientes a aquel en que se produzcan.

2. La toma de posesión determina la adquisición de los derechos y deberes funcionariales inherentes al puesto; y el funcionario o funcionaria pasará a depender de la correspondiente corporación.

*Duodécima. Recursos.*

Los actos administrativos dictados en el procedimiento de concurso podrán ser impugnados conforme a lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta diputada foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 10 de noviembre de 2021.— El secretario técnico del Departamento, Alfonso Acarreta Rodriguez. (7304)

EK\CV GAO-I-2021-07304

ERANSKINA

*Gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak, lehiaketa bateratuaren 2021eko deialdi honen bidez betetzekoak.*

— 1. mailako Idazkaritzak:

1. Arrasateko Udala.
2. Azpeitiko Udala.
3. Eibarko Udala.
4. Hernaniko Udala.
5. Hondarribiko Udala -lehenengo oinarria, 1.d) atala.

— 2. mailako Idazkaritzak:

6. Aretxabaletako Udala.
7. Astigarragako Udala.
8. Beasaingo Udala.
9. Bergarako Udala.
10. Debako Udala.
11. Elgoibarko Udala.
12. Ibarrako Udala.
13. Lazkaoko Udala.
14. Legazpiko Udala.
15. Oiartzungo Udala.
16. Ordiziako Udala.
17. Pasaiako Udala.
18. Urnietako Udala.
19. Urretxuko Udala.
20. Usurbilgo Udala.
21. Villabonako Udala.
22. Zumaiako Udala.
23. Zumarragako Udala.

— 3. mailako Idazkaritzak:

24. Albiztur-Beizama elkartea.
25. Alkiza-Larraul elkartea.
26. Altzaga-Arama-Itsasondo elkartea –lehenengo oinarria, 1.d) atala–.
27. Berastegi-Elduain elkartea.
28. Bidania-Goiatz eta Berrobi elkartea.
29. Elgeta-Leintz Gatzaga elkartea.
30. Errezil-Hernialde elkartea.
31. Leaburu-Gaztelu elkartea.
32. Mutiloa-Zalduondo-Zerain elkartea.
33. Zaldibia-Gaintza elkartea.
34. Adunako Udala.
35. Altzoko Udala.
36. Amezketako Udala.
37. Anoetako Udala.
38. Ataungo Udala.
39. Belauntzako Udala.
40. Gabiriako Udala.
41. Getariako Udala.
42. Idiazabalgo Udala.

ANEXO

*Relación de puestos de trabajo vacantes reservados a personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional cuya provisión se convoca mediante el presente concurso unitario de 2021.*

— Secretarías de clase 1.ª:

1. Ayuntamiento de Mondragón.
2. Ayuntamiento de Azpeitia.
3. Ayuntamiento de Eibar.
4. Ayuntamiento de Hernani.
5. Ayuntamiento de Hondarribia -base primera, apartado 1.d).

— Secretarías de clase 2.ª:

6. Ayuntamiento de Aretxabaleta.
7. Ayuntamiento de Astigarraga.
8. Ayuntamiento de Beasain.
9. Ayuntamiento de Bergara.
10. Ayuntamiento de Deba.
11. Ayuntamiento de Elgoibar.
12. Ayuntamiento de Ibarra.
13. Ayuntamiento de Lazkao.
14. Ayuntamiento de Legazpi.
15. Ayuntamiento de Oiartzun.
16. Ayuntamiento de Ordizia.
17. Ayuntamiento de Pasaia.
18. Ayuntamiento de Urnieta.
19. Ayuntamiento de Urretxu.
20. Ayuntamiento de Usurbil.
21. Ayuntamiento de Villabona.
22. Ayuntamiento de Zumaia.
23. Ayuntamiento de Zumarraga.

— Secretarías de clase 3.ª:

24. Agrupación Albiztur-Beizama.
25. Agrupación Alkiza-Larraul.
26. Agrupación Altzaga-Arama-Itsasondo –base primera, apartado 1.d)–.
27. Agrupación Berastegi-Elduain.
28. Agrupación Bidania-Goiatz y Berrobi.
29. Agrupación Elgeta-Leintz Gatzaga.
30. Agrupación Errezil-Hernialde.
31. Agrupación Leaburu-Gaztelu.
32. Agrupación Mutiloa-Zalduondo-Zerain.
33. Agrupación Zaldibia-Gaintza.
34. Ayuntamiento de Aduna.
35. Ayuntamiento de Altzo.
36. Ayuntamiento de Amezketa.
37. Ayuntamiento de Anoeta.
38. Ayuntamiento de Ataun.
39. Ayuntamiento de Belauntza.
40. Ayuntamiento de Gabiria.
41. Ayuntamiento de Getaria.
42. Ayuntamiento de Idiazabal.

EK\CV GAO-I-2021-07304

43. Ikaztegietako Udala.
44. Irurako Udala.
45. Legorretako Udala.
46. Mendaroko Udala.
47. Mutrikuko Udala.
48. Ormaiztegiko Udala.
49. Segurako Udala.
50. Zegamako Udala.
51. Zizurkilgo Udala.
52. Sasieta Mankomunitatea.
53. Urola Erdiko Mankomunitatea.

— 1. mailako Kontuhartzailetzak:

54. Arrasateko Udala.
55. Azpeitiko Udala.
56. Eibarko Udala.
57. Errenteriako Udala.
58. Hernaniko Udala.
59. Hondarribiko Udala.
60. Irungo Udala.
61. Zarauzko Udala.

— 2. mailako Kontuhartzailetzak:

62. Andoaingo Udala.
63. Aretxabaletako Udala.
64. Astigarrako Udala.
65. Azkoitiko Udala.
66. Beasaingo Udala.
67. Bergarako Udala.
68. Debako Udala.
69. Elgoibarko Udala.
70. Ibarrako Udala.
71. Legazpiko Udala.
72. Lezoko Udala.
73. Oiartzungo Udala.
74. Oñatiko Udala.
75. Ordiziako Udala.
76. Pasaiako Udala.
77. Tolosako Udala.
78. Urnietako Udala.
79. Urretxuko Udala.
80. Villabonako Udala.
81. Zumaiako Udala.
82. Zumarragako Udala.

— Diruzaintzak:

83. Arrasateko Udala.
84. Azpeitiko Udala.
85. Errenteriako Udala.
86. Hernaniko Udala.
87. Hondarribiko Udala.
88. Irungo Udala.
89. Zarauzko Udala.
90. Andoaingo Udala.

43. Ayuntamiento de Ikaztegieta.
44. Ayuntamiento de Irura.
45. Ayuntamiento de Legorreta.
46. Ayuntamiento de Mendaro.
47. Ayuntamiento de Mutriku.
48. Ayuntamiento de Ormaiztegi.
49. Ayuntamiento de Segura.
50. Ayuntamiento de Zegama.
51. Ayuntamiento de Zizurkil.
52. Mancomunidad Sasieta.
53. Mancomunidad del Urola Medio.

— Intervenciones de clase 1.ª:

54. Ayuntamiento de Mondragón.
55. Ayuntamiento de Azpeitia.
56. Ayuntamiento de Eibar.
57. Ayuntamiento de Errenteria.
58. Ayuntamiento de Hernani.
59. Ayuntamiento de Hondarribia.
60. Ayuntamiento de Irun.
61. Ayuntamiento de Zarautz.

— Intervenciones de clase 2.ª:

62. Ayuntamiento de Andoain.
63. Ayuntamiento de Aretxabaleta.
64. Ayuntamiento de Astigarraga.
65. Ayuntamiento de Azkoitia.
66. Ayuntamiento de Beasain.
67. Ayuntamiento de Bergara.
68. Ayuntamiento de Deba.
69. Ayuntamiento de Elgoibar.
70. Ayuntamiento de Ibarra.
71. Ayuntamiento de Legazpi.
72. Ayuntamiento de Lezo.
73. Ayuntamiento de Oiartzun.
74. Ayuntamiento de Oñati.
75. Ayuntamiento de Ordizia.
76. Ayuntamiento de Pasaia.
77. Ayuntamiento de Tolosa.
78. Ayuntamiento de Urnieta.
79. Ayuntamiento de Urretxu.
80. Ayuntamiento de Villabona.
81. Ayuntamiento de Zumaia.
82. Ayuntamiento de Zumarraga.

— Tesorerías:

83. Ayuntamiento de Mondragón.
84. Ayuntamiento de Azpeitia.
85. Ayuntamiento de Errenteria.
86. Ayuntamiento de Hernani.
87. Ayuntamiento de Hondarribia.
88. Ayuntamiento de Irun.
89. Ayuntamiento de Zarautz.
90. Ayuntamiento de Andoain.

EK\CV GAO-I-2021-07304

91. Beasaingo Udala.

92. Elgoibarko Udala.

93. Ibarrako Udala.

94. Lezoko Udala.

95. Oiartzungo Udala.

96. Tolosako Udala.

97. Zumaiako Udala.

Lanpostu guztiek derrigorrezko 4. HE dute; Andoaingo Udaleko Kontuhartzailetza eta Diruzaintza lanpostuek eta Hondarribiko Udaleko Diruzaintza lanpostuak izan ezik, horiek derrigorrezko 3. HE baitute.

91. Ayuntamiento de Beasain.

92. Ayuntamiento de Elgoibar.

93. Ayuntamiento de Ibarra.

94. Ayuntamiento de Lezo.

95. Ayuntamiento de Oiartzun.

96. Ayuntamiento de Tolosa.

97. Ayuntamiento de Zumaia.

Todos los puestos tienen asignado el PL4 preceptivo, salvo los puestos de Intervención y Tesorería del Ayuntamiento de Andoain, y el puesto de Tesorería del Ayuntamiento de Hondarribia, que tienen asignado el perfil lingüístico 3 preceptivo.

EK\CV GAO-I-2021-07304